



Guk
pasó!



Guk pasó!



Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) da PISA (Programme for International Student Assessment) proba egiten duen erakundea, eta **politika neoliberal basatiak** sustatzen dituen erakundea da ELGA.



Laginketan oinarritutako proba da, hiru urtean behin egiten da, eta 15 urteko ikasleen "gaitasunak" ebaluatzen ditu, baina **soilik irakurketa, matematikak** eta **zientziak** arloetan.



Guztiz **bat datoz PISAren** eta **LOMCEren** helburuak. PISAn emaitzak hobetzeko tresnatzat aurkeztu zuten hezkuntza lege hori



Fokua soilik hiru gaitasunetan jarrita, **bigarren mailan** gelditzen dira heziketa oso edo integral batentzat ezinbestekoak diren **garapen artistikoa, hausnarketa kritikoa** eta **heziketa emozionala**. Eta ez ditu aintzat hartzen, ez bederen hezkuntzaren helburu gisa, tokian tokiko berezko hizkuntzen eta kulturen transmisioa..



Hezkuntza sistemak **kontrolpean** edukitzeko eta **homogeneizatzeko** tresna da PISA, hezkuntza sistemak **lan merkatuaren eskaeretara** egokitzea du xede, eta hezkuntza eskubide unibertsaltzat hartzetik urruntzen gaitu.



PISAren alderdi ezagunena **lurraldeen arteko sailkapenak** dira, probaren emaitzetan oinarritzen dira. Proba horiek, oso bestelakoak diren errealitateak erkatzeaz gain, ez dute kontuan hartzen testuingurua, eta hezkuntza sistemen ibilbidea ere ez.



Emaitzen azterketaren bidez, **PISAk lehia bidegabea sustatzen du** hezkuntza komunitate bakoitzak adostutako interes eta beharrezanetatik guztiz urruntzen diren helburu batzuen inguruan.



Herralde batzuk, esate baterako **Finlandia**, sailkapen horietan goi-goian egon baita, **ohorezko lekuetatik urrun samar daude gaur egun**, Hego Koreak eta Singapurrek hartu dute haien lekua, eta herrialde horietako hezkuntza sistemetan lehia da ardatz nagusia.



Ezinbestekoa da proba honen aurrean **intsumisioa** planteatzea, probak ez baitu balio estatistikorik izango aukeratutako ikasleetatik askok egiten ez badute. Egin planto, paso egin PISARI eta borroka ezazu.

* Informazio gehiago duzu **STEILASen**
Ebaluazioaren azterketa txostenean

